

ACTA N° 4 DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 12 DE MARZO DE 2014

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de la Villa de Zarautz y siendo las diecinueve horas del día 12 de marzo de 2014, se reúne el Pleno de la Corporación, al objeto de celebrar la sesión extraordinaria previamente convocada para estos día y hora.

Asisten los Sres. Concejales que a continuación se indican:

Presidente	D. Juan Luis Illarramendi Roteta
Concejales	D ^a Eider Illarramendi Azkue D. Jabier Etxaburu Elu D ^a Karmele Alberdi Linazasoro D. Iñaki Eizagirre Eizagirre D ^a Alizia Osa Otxandorena D. Mikel Goenaga Gubia D ^a Ane Eizmendi Alberdi D. Gari Berasaluze Ostolaza D. Imanol Lasa Zeberio D ^a Maite Garrastazu Aranguren D. Ixidor Larrañaga Aierbe D. Jesus Arana Gomez D. Patxi Elola Azpeitia D ^a Irma Domingorena Zapirain D ^a Gloria Vazquez Herranz D ^a Mariana Aranburu Garate D. Aser Lertxundi Manterola D ^a M ^a José Lafuente Grasa
No asisten	D ^a Maribel Albizu Barrenetxea D. Iban San Martin Hernandez
Secretaria	D ^a Inés Diaz de Villafranca Arzamendi

Abierta la sesión a indicación del Sr. Presidente, la Secretaria da cuenta de que la sesión es extraordinaria y el motivo de ello es que el día 16 de marzo finaliza el plazo para colocar la bandera.

Seguidamente se inicia el estudio y debate del único asunto incluido en el Orden del Día, que a continuación se desarrolla así:

ORDEN DEL DIA

Único.- BANDERA Y MENSAJE

La Sra. **Secretaria** da lectura a la siguiente propuesta presentada por los grupos municipales de BILDU y EAJ-PNV:

“BANDERA Y MENSAJE

1936ko irailaren 20a. Frankistak iluntzean iritsi dira herrira. Matxinatuek parrokiara jo dute aurrena, otoitz egitera. Jarraian, udaletxe hondatura. Areto nagusira sartu eta, beste ezer baino lehen, bandera gorri-horia jarri dute, “Viva España!” eta “Vivan los requetés y falangistas!” eginez. Ez dago botoen beharrik. Komandante militarrek izendatu du udalbatza berria biharamunean. “Viva el Ejército Salvador de España”, dio irailaren 21eko pleno bereziaren aktaren azken lerroak.

1977ko urtarrilaren 20a. Erreketeek eta falangistek ekarritako banderaren pean egin ditu berrogei urte Zarauzko udalak, baina iritsi da eguna. Bergarako alkateen mugimendua gidari, ikurriña katakunbetatik plazara atera da. Gobernadore frankistak izendatutako alkateak nahiago izan du dimititu, ikurriña jaso baino. Ikastolen guraso elkartetik barrena udalbatzan sartutako zinegotziak, orain jarduneko alkate, jaso du bi kolpetan ikurrina, foru zaharren enparantza herritarrez lepo dagoela. Aldamenean, bandera gorri-horia jarri behar izan dute. Legea lege.

1979ko ekainaren 25a. Gauerdia da. Herritarren botoen bidez aukeratutako alkatea ikurrina jasotzen ari da udaletxearen balkoian, plazan kabitu ezinik bildu diren zarauztarrak “Pelaio Pelaio” abesten ari diren bitartean. Erdiko mastan ikurrina, alde batean Zarauzko oihal gorria, eta bestean Gipuzkoako zuria. Hamarkada luzeetan aurreneko aldiz, bandera hori-gorriarik ez da ageri balkoian. Herritarren borondatea lege, behingoz.

2013ko abenduaren 20a. “Viva la Constitución” oihukatzea ofizio duen delegatuaren salaketari arrazoi eman diote epaitegiek. Honenbestez, gure udalari agindu diote bandera arrotza jarri behar duela, bai kanpoan bai barruan, lehenetsuneko lekuan, beste banderak baino gehiago dela nabarmentzeko moduan. “Porque simboliza la nación, es digno de soberanía, independencia, unidad e integridad de la patria y representa los valores superiores expresados en la Constitución.” Ez urtean behin, ez bitan, 365 alditan baizik. Asteaz zazpi egun, egunean 24 ordu. Legeak ez du oporrik.

2014ko martxoaren 12an. Gaur. Lege arrotzek aginduta bandera arrotza jartzera doa herritarrek aukeratutako udala. Legea lege, berriro. Herritarren ordezkarien gainetik, beste behin. Horixe erakutsiko digu oihal gorri-horiak egunean 24 orduz, urtean 365 egunez: gure borondatearen gainetik ezarri nahi dizkigutela, eta ezarri egiten dizkigutela, “los valores superiores expresados en la Constitución.”

Testu honek dioena gure hartuz, honakoa eskatzen diogu Zarauzko Udalari:

- 1 Herritar asko eta askorentzat gaurko eguna laidoaren eguna da. Bandera inposatuko zaigu, baina horregatik ez da gurea izango.
- 2 Dokumentu honen bidez, eskaria luzatzen diogu Zarauzko Udalari, lehengo egoerara itzultzeko beharrezko betekizunak has ditzan, herritarren gehiengoaren borondateari jarraiki, hark emana baita duen udalbatzar honek duen boterea.
- 3 Dei egiten diogu Espainiar Gobernuari sinbolo eta legeen inposaketa politika alde batera utzi eta herri honek bere etorkizuna libreki erabakitzeko duen eskubidea errespetatzea dezan.”

El Pleno del Ayuntamiento, por mayoría, ACUERDA aprobar la proposición transcrita.

Y no habiendo más asuntos de que tratar de orden del Sr. Presidente se da por finalizada la sesión siendo las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos, de lo que yo la Secretaria, doy fe.